



JOSÉ MARÍA BAZTARRICAK ANDRÉS ARIZKORRETARI EMAN DIO CAFEKO LEHENDAKARITZAREN LEKUKOA

- José María Baztarrica CAFeko lehendakari exekutiboak karguari uko egin dio gaur bere borondatez Administrazio Kontseiluaren aurrean.
- Administrazio Kontseiluak CAFen garapenari eta hazkundeari egin dion ekarpen erabakigarria eskertu dio José María Baztarricari, eta, aho batez, sozietateko ohorezko lehendakari izendatu du.
- Andrés Arizkorreta izendatu dute lehendakari exekutibo, aho batez.

Beasainen, 2015eko abenduaren 29an José María Baztarricak karguari bere borondatez uko egin diola jakinarazi da gaur, eta, ondoren, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrileseko Administrazio Kontseiluak, ohiko batzarrean, sozietateko lehendakari eta exekutibo nagusi izendatu du aho batez Andrés Arizkorreta, orain arte kontseilari delegatua.

Kontseiluak uste du José Mariaren ibilbide luze eta arrakastatsuen ondoren CAFen hasten den etapa berrian sozietatearen buru izateko Andrés Arizkorreta lehendakari izendatzeko berme egokia direla haren gaitasun profesional egiaztatua, sozietatean egin duen ibilbidea eta haren dohain profesionalak eta giza balioak.

Baztarrica, exekutibo nagusia.

Administrazio Kontseiluaren gaurko ohiko batzarrean, José María Baztarricak bi hamarkada luzetan halako proiektu liluragarri bezain konplexu baten buru izateko beregan jarritako konfiantza eskertu die akziodunei, eta esan du proiektu horiek enpresako langile guztien konpromisoari esker izandako emaitza bikainek tren-espresaren ospea eta balioa finkatzeko aukera eman dutela. Adierazi du, halaber, ikuspegi pertsonaletik ezin ordainduzkoa izan dela CAFen garapenean eta etorkizunean parte hartu ahal izatea.

Kontseiluak aho batez goretsi du José María Baztarricak CAFeko buru izan den aldiaren egindako lana, eta azpimarratu du haren eredu profesionala, ikuspegia eta gidaritza



gakoak izan direla sozietatearen goitik beherako eraldaketa, zeinak nazioarteko hedapena finkatzeko aukera eman baitu, arrakastaz burutzeko.

Tren-sektorean, José María Baztarricak ospe handia du nazioartean, haren zuzentasun eta gaitasun profesionala direla eta, zeinen bermea baitira sozietatearen emaitza ezin hobekak eta enpresaburu gisa egindako lana aitortuz jaso dituen sari ugariak.

Jarraipena eta indarra

CAFeko lehendakari berri Andrés Arizkorretak nabarmendu egin du bere aurretik sozietatearen buru egon denaren lana, eta esan du José María Baztarrica guztiontzat eredu izan dela beti eta Gipuzkoatik munduko txoko guztietara zabaltzeko gai izan den enpresa baten berreskuratzea, eraldaketa eta hazkundera eragin dituela.

Gainera, lehendakari exekutibo berri izendatzeko beregan jarritako konfiantza eskertu dio Administrazio Kontseiluari, eta, aldi berean adierazi du uste osoa duela CAFek orain arte bezala segituko duela lanean, enpresako langile eta akziodun guztiei harro sentiarazten dien enpresa-proiektu bat garatzeko eta sendotzeko asmoz.

Andrés Arizkorreta, lehendakari exekutibo berria

Andrés Arizkorretak esperientzia eta fidagarritasuna irabazi ditu sozietatean egindako lan exekutiboan. 1980an sartu zen CAFen, eta han egin du bere ibilbide profesional guztia. 2006tik, kontseilari delegatua da.

Ibilbide arrakastatsua

José María Baztarricak, 1990eko hamarkadaren hasieran, sozietatearen egoera irauli zuen plan estrategiko bat jarri zuen martxan. Planaren bi helburu nagusiak akzioen egonkortasuna eta teknologiaren eta nazioartekotzearen aldeko apustua izan ziren.

Lehena euskal aurrezki-kutxen eta Cartera Socialen laguntzari esker lortu zen (Cartera Social da langileei enpresaren akziodun izateko aukera ematen dien bidea).

CAFek goitik behera aldatu du bere negozioa, eta, gaur egun, erabat nazioartekotua dago. Gaur egun, produktu eta zerbitzuen katalogo zabala du, eta, hala, bezero zorrotzenen beharretara egokitzen diren soluzio integralak eman ditzake, zeinak



oinarritzen baitira produktu berriak garatzera eta lehendik daudenak hobetzera bideratutako etengabeko berrikuntzan eta jarduera teknologiko jarraituan.

Eraldaketa sakon horren ondorioz, denbora horretan guztian etengabe hazi dira CAFen nola salmentak hala emaitzak.